



Tourra 91

Indurain

Txapeldun

Etxabarri: «Indurain indartsuena dela erakusten digu garaipenak»

Banesto taldeko zuzendariak konfidantza handia du Indurainengan

Banesto taldeko zuzendariak 1988ko Tourra gogoratzen du momentu honetan. Garai hartan Delgadorekin lortu zuena Indurainekin errepikatu du orain. Orain arte jaso dituen kritika guztiak ahaztu eta nafarraren garaipena ospatu nahi du.

MACON

Jose Miguel Etxabarri oso pozik agertzen zen atzo Maconeko helmugan. Indurainen garaipena ez zuen Banestoko zuzendaria ezustean harrrapatu, «momentu honetan bera da indartsuena». Etapa garaipenak Indurain konfirmatu besterik ez du egiten, «duen indarra eta kategoria konfirmatzen du honek».

Etxabarrik erlojupeko etaparen maila azpimarratzen zuen, «lehen postuetan onenak egon dira, eta horien artean Indurain izan da indartsuena». Aurrerantzean ere maila honetan jarraituko duela espero du Banesto taldeko zuzendariak, «aurrerantzean ere gisa honetako garaipenak emango dizkigula espero dut».



Jose Miguel Etxabarri.

Momentu honetan gauza positiboak besterik ez ditu gogoratzen Etxabarrik. «Egia esan ez ditugu momentu txarrak pasa. Indurainek Tour guztian erakutsi duen indarrak konfidantza handia ematen du». Hala ere lehen etapako ihesaldia ez du ahaztu Etxabarrik, «momentu horretan ezuste handia hartu genuen,

✓ Datozen urteetan Miguel Indurainek maila honetan jarraitu behar duela uste du Jose Miguel Etxabarrik.

baina gero ondo erantzun digu». Etxabarriren ustez, Indurainez gain, gainontzeko taldekideak oso indartsu ibili dira. Bernard, Delgado eta Rondonek aipamen berezia merezi dute.

ERREPIDEAK ERABAKI DU LIDERRA

Tourra hasi aurretik Indurain eta Delgado ziren taldeko liderrak. Horrek eztabaidarako bidea eman zuen. Hala ere Etxabarrik ez du inolako arazorik izan, «errepideak erabaki du liderra. Erlojupeko eta mendiko etapetan Indurain izan da indartsuena». Pariseko helmugan sartzean zirrara berezia somatuko du Etxabarrik. «Momentu hori ez da erraz ahaztutzen. 1988koa oraindik gogoan dut, aurreko sufrimendu guztiak ahaztuarazten bait ditu.



Carreraren garaipenak Claudio Chiappucciren eskutik etorri dira.

Carrera taldeak 400.000 liberatik gora irabazi ditu Tour honetan

MACON

Carrera jeans Italiako taldea izan da, Tour honetan diru gehien eskuratu duena, izan ere 400.000 liberatik gora irabazi bait dute Sandro Quintarelliren mutilek. Claudio Chiappuccik mendiko sailkapeneko lehen postua lortu du eta Abdujaparovek ez du areriorik izan mailot berdea bereganatzerako.

Jose Miguel Etxabarrik zuzentzen duen Banesto taldeak, egundoko Tourra burutu duen arren, ez dira Indurainen kideak diru gehien lortu dutenak. Italiako Carrera taldeko liderra den Claudio Chiappuccik, lasterketa ederra burutu du, eta Val Louronen amaitzen zen lasterketako etapa gogorrena irabazteaz gain, bera dugu mendiko sailkapenaren lehen postua eskuratu duena. Euskal Herriko Itzulia irabazi duen gizonak lehia polita izan du R.M.O taldeko Thierry Claveyrolatekin, baina azkenean Chiappuccik ez du amore eman eta 35 puntuko aldea ateratzen dio txirrindulari frantziarrari.

R.M.O taldea da bestalde, Carreraren atzetik sailkatu dena, diru irabaziei dagokionean. Charlie Motte-tek irabazitako bi etapak eta Claveyrolatek irabazitako beste batek, diru pila emateaz gain, taldearen etorkizuna ziurtatu du. Ariostea dugu hirugarren postuan agertzen dena, Toshiba laugarren, Castorama bost-

garren, Lotto seigarren eta PDM zazpigarren. Banesto taldea bederatzigarren postuan agertzen zaigu, Clas hamaseigarrenean, Once hameretzigarrenean eta Amaya hogeigarrenean.

MEJIAS GAZTERIK ONENA

Jean Paul Van Poppel eta Mario Cipollini izan ziren nagusi Giroan eta Vueltan jokatu ziren sprintetan. Hori dela eta inork ez zuen uste Carrera taldeko Abdujaparov sobietarra nagusi izango zenik Tourreko sprintetan. Orain dela gutxi afizionatu mailan aritu den uzbekiar honek ez du arazorik izan erregulartasuneko sailkapeneko lehen postua eskuratzeko, izan ere, helmugetako sprintez gain, tarteko helmugan guztietan lehen postua lortu asmoz aritu izan bait da Abdujaparov.

Gazteen sailkapenari dagokionez, Postobon taldeko Mejias colonbiarra izan da lehen postua lortu duena, Buckler taldeko De Vriesten aurretik. Amaya taldeko Enrike Gerrikagoitia gernikarra zazpigarren postuan sailkatu da sekulako Tourra burutu ondoren. Taldekako sailkapenei dagokionez, Banesto jaun eta jabe izan da Piriniotako etapak pasa ondoren. Indurainek lortutako lehen postuaz gain, ez da ahaztu behar Jean Francoise Bernard, Abelardo Rondón eta Delgado ere, sailkapen nagusiko lehen postuetan sartu direla.

PARISEKO PODIUMA



M. INDURAIN



G. BUGNO

3.36



C. CHIAPUCCI

5.56

MIGUEL INDURAIN Pariseko podiumaren lehen postua igoko da gaur. Nafarrak uste baino «errazago» irabazi du aurtengo Tourra. Azken erlojupeko etapara hiru minutuko abantailaz iristea luxu handia da. Nafarrak gehiago nahi eta atzoko etapen gehiago aldendu zituen arerioak. Pariseko

helmugan, elkar ikusi ezin duten bi italiar izango ditu Indurainek ezker eskuin: Gianni Bugno eta Claudio Chiappucci. Carrera taldeko txirrindulariak erlojupeko lasterketa bikaina egin zuen atzo, arriskuan zuen hirugarren postua defendatzeko. Hala ere Chiappuccik ezin izan du bere ametsa bete.



TEKNIKER

ikerkuntza elkarteak bere MEKANIKA SAILERAKO INDUSTRI INGENIARIAK behar ditu

Saiaketazko ikarakera azterketa, Elementu Finitoen metodoa, C edo bestelako hizkuntza programazio eta hizkuntza arrotzetan aritu izana baloratuko da.

Interesdunek bidal bezate haien curriculum vitae ondoko helbidera:

TEKNIKER, Otaola 20; 20600 EIBAR (GIPUZKOA)

"Industri ingeniaria" aipatu.

Telefona: (943) 11.67.44

Telefata: (943) 11.27.57